

aniztasuna

aukerak
pertsonak



Gipuzkoako Gutxitasun
Fisikoa duten Pertsonen
Federazio Koordinatzailea



inklusioa

autonomia pertsonala
eraldaketa soziala
irigarritasun unibertsala



eskubideak
berdintasuna

parte-hartzea

GIPUZKOAKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN
PERTSONEN EGOERA ETA BEHARRIZANEI
BURUZKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA

LABURPEN EXEKUTIBOA 2016



elkartu - GIPUZKOAKO GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN FEDERAZIO KOORDINATZAILEA

.....

ondarreta pasealekua 5, behea | 20018 donostia-san Sebastián

tel: 943 316 770 / fax: 943 316 379 | elkartu@elkartu.org

www.elkartu.org



Gipuzkoako Foru Aldundia



www.creativecommons.org

Gipuzkoan Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Egoerari eta Beharrazanei buruzko Azterketa-diagnostikoa Estudio-diagnóstico de situación y necesidades de las personas con discapacidad física de Gipuzkoa by Elkartu, Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa is licensed under a Creative Commons Reconocimiento 4.0 Internacional License.



01

HELBUKAK


.....



02

METODOLOGIA

.....



03

ONDORIOZKO
DATUAK



.....



04

ZEHARKAKO
PROPOSAMENAK

.....



oi



HELBURUAK



Zeintzuk dira ikerketa
proiektuaren helburu
nagusiak?



OI HELBURUAK

Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharrezanean buruzko azterketa-diagnostikoaren helburu nagusia zera da: bizi-kalitatean eragina duten alorretan kolektiboaren egoera objektiboki zehaztea, horri esker **elkarturen** aldarrikapenentzako oinarriak finkatu eta erakunde publikoei, eragile pribatuei eta gizarte osoari, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratze osoa eta gizarte- partaidetza bultzatzeko politika, neurri eta jarrerak har ditzatela eskatzeko.


Beraz, ikerketa-proiektuak ikuspegi bikoitz batetik heltzen dio errealitateari: alde batetik, Gipuzkoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboa ikertu eta ezaugarritu nahi du, eta, beste alde batetik, kolektibo horrek bizitza in-dependiente eta aukera-berdintasuna eskuratzeko zer beharizan eta eskari dituen identifikatu nahi du.

01 HELBURUAK

Zehazki, **elkartuk** burututako proiektu honek honako helburu zehatzak eskuratu nahi ditu:

- Gipuzkoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen profil soziodemografikoa ezagutzea.
- Aztertu diren alorretan, bizikaltatean funtsezkoak diren alorretan zer egoera objektibo duten zehaztea.
- Alor horietan zer gabezia dauden identifikatzea, hala desgaitasun fisikoa duten pertsonen aldetik nola politika eta neurri publikoen eta pribatuen aldetik, gizarte-politikak egoki planifikatzen lagundu ahal izateko.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen autonomian eta bizikaltatean aurreratzen lagunduko duten hobekuntzak proposatzea.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen partaidetza aktiboa eta ardurakidetasuna sustatzea, euren autonomia pertsonala bultzatzeko bidea delakoan. Horretarako, ikerketa-proiektuaren subjektu aktibotzat jo dira, eta ez azterketa xede soiltzat.
- Federazioaren baitan eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboan prozesu parte-hartzaileak sortzea, elkartean demokrazia sustatu eta desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea bultzatzeko asmoz.

02



METODOLOGIA

02



- 02.1.... 1º FASEA
- 02.2.... 2. FASEA
- 02.3.... 3. FASEA
- 02.4.... 4. FASEA
- 02.5.... 5. FASEA



02 METODOLOGIA

Azterlana Ikerketa parte-hartzailearen metodoan oinarritu da. Hartara, desgaitasun fisikoa duten pertsonak ez dira izan azterketa-xede hutsak eta bai, ordea, ikerketaren protagonistak; ildo horretan, prozesu osoan zehar (diseinuan, faseetan, bilakaeran, ekintzetan, proposamenetan, etab.) parte-hartze zuzena izan dute.

Proiektua egiteko, desgaitasun fisikoa duten 102 pertsonak osatutako lagina erabili da. Gipuzkoan desgaitasun fisikoren bat duten pertsona guztiei buruzko informazioa biltzen duen erroldarik edo administrazio erregistrorik ez dagoenez, laginketa ez-probabilistikoaren teknika erabili da. Hori dela eta, Ikerketa honetan parte

hartu duten pertsonak hautatzeko, **elkarturen** programak eta jarduerak erabiltzen dituzten pertsonak hartu dira kontuan. Hautaketa hori egiteko, garrantzi berezia eman zaie honako aldagai hauei: sexua, desgaitasunaren jatorria, desgaitasun gradua, mendekotasun gradua eta bizilekua, besteak beste. Laginketa metodo honek ez du bermatzen laginaren ordezkagarritasuna; hori dela eta, ezin dira lortutako emaitzak Gipuzkoan desgaitasun fisikoren bat duten pertsona guztien egoerara orokortu. Alabaina, ezin uka daiteke deskribatu diren egoerek zorroztasunez biltzen dituztela gure lurraldean bizi diren eta desgaitasun fisikoren bat duten pertsona askoren bizi baldintzak.



02 METODOLOGIA

Ikerketak metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatu ditu. Langile teknikoek erantzundako galde-sorten bidez garatu den metodologia kuantitatiboari esker, aztertutako arloei lotutako datu kuantifikagarriak bildu ahal izan dira. Banakako elkarrizketen eta eztabaida- taldeen bidez bideratu den metodologia kualitatiboari esker, berriz, desgaitasun fisikoa duten pertsonen alderdi subjektiboak eta aztertu diren arloei buruzko alderdiak nola bizi izan dituzten jakin ahal izan dugu.





02 METODOLOGIA

Datu objektiboak (banakako elkarrizketak) biltzeko erabilitako teknikari esker, bi ikuspegitatik heldu ahal izan zaio azterketari:



BANAKAKO IKUSPEGIA

Elkarrizketatutako pertsonen aztertutako arloetan duten egoera eta beharrianak zehaztu eta diagnostikatu egin dira, hala bada, dagozkion esku-hartze sozialak burutu ahal izateko.



IKUSPEGI KOLEKTIBOA

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboaren egoera eta beharrianak landu dira, aztertutako arloetan hobetzeko proposamenak aldarrikatu ahal izateko.

Adierazi dugun bezala, proiektuaren fase guztietan bultzatu nahi izan den izaera parte-hartzailea izan da metodologiaren funtsezko alderdietako bat. Izan ere, ikuspegi kualitatiborik edo subjektiborik handiena eskatzen zuten arloei helduko zieten taldeak antolatzeko funtsezko faktorea izan da.



02 METODOLOGIA

Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharrezanezko buruzko azterketa-diagnostikoa:

Garraioa



2014ko urriaren 27a - Desgaitasuna duten 7 lagun

Ohiko bizitokia



2014ko urriaren 29a - Desgaitasuna duten 14 lagun

Prestakuntza/Lana



2014ko azaroaren 3a - Desgaitasuna duten 12 lagun

Alisialdia



2014ko azaroaren 3a - Desgaitasuna duten 15 lagun

Generoa



2014ko azaroaren 5a - Desgaitasuna duten 10 lagun

Generoa



2014ko azaroaren 21a - Desgaitasuna duten 12 lagun



02 METODOLOGIA

Oinarri horretan berrmatuta, Azterketan erabilitako metodologia fasetan banatu da eta faseak, aldi berean, ekintzatan:

1. FASEA: Proiektua diseinatzea

1. EKINTZA

Ikerketa-proiektuan parte hartuko duten langile teknikoak hautatzea.

2. EKINTZA

Langile teknikoak trebatzea.

3. EKINTZA

Langile teknikoek banakako elkarrizketetan bete beharko duten fitxa prestatzea.

4. EKINTZA

Esku-hartzeetarako fitxa prestatzea.

5. EKINTZA

Datuak biltzeko sistema informatikoa prestatzea.

6. EKINTZA

Elkarrizketatuko diren pertsonak hautatzea.

7. EKINTZA

Esku-hartzeko arlo zehatzei buruzko oinarri dokumentala biltzea.

8. EKINTZA

Elkarrizketak egiteko eta proiektuaren gainerako faseetarako egutegia zehaztea.

9. EKINTZA

Gaikako arloei buruzko arau-esparrua prestatzea.



02 METODOLOGIA

2. FASEA: Banakako elkarrizketak

1. EKINTZA

Elkarrizketa esperimental batzuk lotu eta burutzea, zehaztutako metodoa egokia den erabakitzeke.

2. EKINTZA

Fase esperimentalaren ondoren elkarrizketekin jarraitzea, elkarrizketatu beharreko pertsonak langile teknikoen artean banatuta.

3. EKINTZA

Elkarrizketetan ateratako datuak biltzea.

4. EKINTZA

Elkarrizketetan antzeman eta diagnostikatutako gaiak zehaztu ondoren, elkartuko langileek osatutako diziplina anitzeko taldearen bidez banakako esku hartzeak diseinatzea.

5. EKINTZA

Esku-hartze horiek burutzea, elkarrizketatutako pertsonarekin batera.



02 METODOLOGIA

3. FASEA: Eskuratutako datuak aztertu eta aurretiko ondorioak prestatzea

1. EKINTZA

Elkarrizketetan ateratako datuak aztertzea, tresna informatikoaren bidez.

2. EKINTZA

Azterketaren helburu diren aldagai zehatzak aztertzea.

3. EKINTZA

Aurretiko ondorioei buruzko lehen txostena idaztea.



02 METODOLOGIA

4. FASEA: Eztabaida eta kontraste-taldea profesionalekin

1. EKINTZA

Azterketaren helburu diren arloei buruzko eztabaida-taldeak antolatu eta burutzea.

2. EKINTZA

elkartuko profesionalen eta azterketaren helburu diren arloetako arduradunen arteko bilerak burutzea.

5. FASEA: Azterketaren azken txostena prestatu eta aurkeztea


1. EKINTZA

Aurretiko ondorioak eta eztabaida taldeetan jasotako ekarpenak aztertu ondoren, azken txostena idaztea.

2. EKINTZA


Gizarteari eta aztertutako arloetan eskumena duten erakunde publikoei txostenaren berri emateko programa diseinatzea.

03




ONDORIOZKO DATUAK AHULGUNEAK ETA PROPOSAMENAK

03



- 03.1... Desgaitasuna eta mendekotasuna.
- 03.2... Ohiko bizitokia eta eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko laguntza.
- 03.3... Hezkuntza/Prestakuntza.
- 03.4... Lan-egoera.
- 03.5... Egoera ekonomikoa.
- 03.6... Laguntza-produktuak eta mugikortasunerako laguntzak.
- 03.7... Aisialdia eta komunitateko partaidetza.
- 03.8... Garraioa.
- 03.9... Osasuna.
- 03.10... Generoaren eta desgaitasun fisikoaren pertzepzioa.
- 03.11... Zeharkako proposamenak.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.1

DESGAITASUNA ETA MENDEKOTASUNA



Gizonen % 56,9k eta emakumeen % 43,1ek gerora sortutako desgaitasuna dute.




Mendekotasunaren III. gradua aitortuta duten pertsonen % 67,7k sortzetiko desgaitasuna dute.



Elkarrizketatutako pertsonen % 72,5 mugikortasun murriztuko pertsonak dira; horietako % 79,7k gurpil-aulkia daramate.



Gurpil-aulki elektrikoa daramaten pertsonen % 44,0k baino ez dute aitortua mendekotasunaren III. gradua.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.1

DESGAITASUNA ETA MENDEKOTASUNA



ATULGUNEAK

- Desgaitasunaren irismen-galera mendekotasunaren aurrean; nola baliabideak eskuratzeari dagokionez, hala gizarte ikusmoldeari dagokionez.
- Mendekotasun-egoerak baloratzeko tresnen ugaritasuna.
- Desgaitasuna eta mendekotasun-egoera baloratzeko tresna-gabezia, mugaketa funtzionalen eta erabateko gizarteratzea gauzatzeko dauden oztopoen artean dagoen elkarreragina egiazki azaleratzeko.
- Desgaitasuna edo/eta mendekotasuna baloratzeko tresnak erabiltzea, zerbitzuen eta prestazioen sarbidea eta intentsitatea egokitzeak.
- Desgaitasuna edo/eta mendekotasuna baloratzeko prozeduretan, bai eta baliabideak, zerbitzuak eta laguntzak esleitzean ere, datu pertsonalen babesa eta intimitate-eskubidea urratzeko arriskua.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.1

DESGAITASUNA ETA MENDEKOTASUNA



PROPOSAMENAK

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioan aitortutako desgaitasunaren gizarte-ikusmoldea finkatzea eta bultzatzea, ikuspegi asistentzialistak saihestuz.
- Desgaitasunak mendekotasun kontzeptuaren finkatze eta garapenaren azpian indarra gal dezan saihestea.
- Desgaitasuna eta mendekotasun-egoera baloratzeko tresnak desgaitasuna duten pertsonen autonomia aitortzeko eta sustatzeko egokitzea.
- Mendekotasun-egoera baloratzeko tresnaren araudia aldatzea, laguntza-produktuen erabilerak ez dezan zigortu zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko aukera edo horien intentsitatea.
- Desgaitasuna edo/eta mendekotasuna baloratzeko tresnak egoera politiko edo ekonomikoaren arabera zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko aukera eta horien intentsitatea egokitzeko tresna gisa erabiltzea saihestea.
- Desgaitasuna duten pertsonen datu pertsonalen babesa eta intimitate-eskubidearen bermea muturreraino eramatea, hainbat zerbitzu eta prestazioren izapideetan eta balorazio prozeduretan.
- Administrazio Publikoek desgaitasuna eta mendekotasun-egoera baloratzeko zerbitzuak zuzenean eskaintzea, erakunde pribatuekiko ituna, kontratazioa edo ordezkaritza izan ezik.
- Baliaezintasun handiko edo ezintasun iraunkor oso edo absolutuagatik pentsioa aitortuta dutenei % 33ko desgaitasuna edo handiagoa modu eraginkorrean onartzea.




03 ONDORIOZKO DATUAK

03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA

- Elkarrizketatutako pertsonen % 80,4 etxebizitza partikular batean bizi dira; % 34,3k, berriz, egoitza-baliabideren bat erabiltzen dute (egoitza-zentroa, eguneko zentroa edo biak).
- Mendekotasunaren III. gradua duten pertsonen % 77,4, II. gradua dutenen % 68,0 eta I. gradua dutenen % 61,5 etxebizitza partikular batean bizi dira.
- Etxebizitzaren edo azalera-eskubideen jabe izanda etxebizitza partikular batean bizi direnen % 46,5en kasuan, etxebizitza familia-unitateko kideena da, eta ez desgaitasun fisikoa duen pertsonarena berarena. Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 63,4 etxebizitza libre batean bizi dira, etxebizitzaren jabe direla (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 76,8). % 23,2, berriz, babes ofizialeko etxebizitza batean bizi dira, etxebizitzaren edo azalera-eskubideen jabe direla (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 10,6). Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 4,9 etxebizitza libre batean bizi dira, alokairuan (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 11,5). % 8,5, berriz, babes ofizialeko etxebizitza batean bizi dira, alokairuan (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 1,1).



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA

Etxebizitza partikular batean bizi diren elkarrizketatuen % 26,8k (horietako % 54,5ek mugikortasun murriztua dute) ez dute igogailurik etxean.

Desgaitasun fisikoa duten eta etxebizitza partikular batean beste norbaitekin bizi diren 30 urtez azpiko pertsona guztiak gurasoekin bizi dira. % 65etik gorako desgaitasuna dutenen kasuan, % 52,2 dira gurasoekin bizi direnak.

Mendekotasun-egoeran egonda etxebizitza partikular batean bizi diren pertsonen eguneroko bizitzako jardueretan beharrezkoa duten laguntza bizikideek ematen diete kasuen % 48,0tan, kanpoko pertsona batek kasuen % 22,0tan eta bien artean kasuen % 30,0etan. Mendekotasun-egoeretan laguntza eskaintzen dieten bizikideen generoari

dagokionez, kasuen % 61,5etan emakume batek ematen du oso osorik laguntza, kasuen % 12,8tan gizon zein emakumeek eta kasuen % 25,6tan gizon batek.

Hauek dira Mendekotasunaren Autonomiarako eta Arretarako Sistemaren prestazio ekonomikoak ez eskuratzeko arrazoiak: baliaezintasun handiko lan-ezintasun iraunkorreko pentsioaren titularra izatea (% 35,3), kotizatu gabeko pentsioan hirugarren pertsona bati laguntzeko edo semea-alaba kargura edukitzeagatik osagarria jaso eta aldi berean eguneko zentroa erabiltzeagatik (% 23,5), ikerketa-proiektua egin zen unean gutxieneko mendekotasun-gradua onartu gabe izateagatik (% 17,6), beste zerbitzu batzuk jasotzeagatik (% 11,8), eta eskaeraren izapideak ez egiteagatik (% 11,8).



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA

- Desgaitasun fisikoa duten, mendekotasun-egoeran dauden eta etxebizitza partikular batean bizi diren pertsonen % 18,0k etxez etxeko laguntza-zerbitzua jasotzen dute.
- Desgaitasun fisikoa duten, mendekotasun-egoeran dauden eta etxebizitza partikular batean bizi diren elkarrizketatuen % 18,0k Bizitza Independenteterako Programan parte hartzen dute, nahiz eta kasu horietako % 20,0tan baino ez diren estaltzen kontratatutako laguntza-kostu guztiak emandako prestazioekin.
- Mendekotasunari arreta ohiko ingurunean eskaintzen zaion kasuen % 34,0tan soilik familiak egiten du; eta kasuen % 66,0tan, arreta hori osatu egiten da dauden baliabide publikoekin (familia-ingurunekeo zaintzen prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta bizitza independenterako programa).
- Egoitza-baliabidea erabiltzen duten pertsonen % 90ek 3 urtetik gorako egonaldia egiten dute bertan.
- Egoitza-baliabide baten erabiltzaileen % 75,0ek gehienez ere 163 € dituzte hilean euren komunitate-ingurunean erabat parte hartzeko beharrezko gastuak ordaintzeko (aisialdia, garraioa, arropa, osasun-gastuak, etab.).
- Egoitza-baliabideren bat erabiltzen duten pertsonen % 65,0ek astean behin edo noizean behin irteerak egiten dituzte zentrotik.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.2


OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



Eguneko zentro baten erabiltzaileen % 61,9k zentroko bertako garraiobide egokitu batean egiten dituzte zentrorako joan etorriak.



Desgaitasun fisikoa duten, mendekotasun-egoeran dauden eta etxebizitza partikular batean bizi diren pertsonen % 66,0k oso ontzat jotzen dute jasotzen duten laguntza (egoitza-baliabideren bat erabiltzen dutenen artean, berriz, % 20,0k); % 30,0ek ontzat jotzen dute (egoitza-baliabideren bat erabiltzen dutenen artean ere % 30,0ek); % 0,0k erdipurdikotzat (egoitza-baliabideren bat erabiltzen dutenen artean, aldiz, % 25,0ek); % 0,0k txartzat (egoitza-baliabideren bat erabiltzen dutenen artean, aldiz, % 10,0ek); eta, azkenik, % 0,0k oso txartzat (egoitza-baliabideren bat erabiltzen dutenen artean, berriz, % 10,0ek).



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



AHULGUNEAK

- Arretarako Banakako Programetan, osasun-eredua gizarte-ereduaren gainetik egotea.
- Pertsona ugari aritzea instituzionalizazioan oinarritutako bizitza-eredu bat garatzen.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsona ugari ez dute bizi diren etxebizitzaren jabetza-eskubiderik.
- Etxebizitza-politika publikoekiko gehiegizko mendekotasuna.
- Alokairuaren merkatu librerako sarbide eskasa.
- Alokairu-politiken sustapenerako programa publikoetan irisgarriak diren etxebi-zitzen gabezia.
- Ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik, igogailurik gabeko etxebizitza batean bizi diren mugikortasun murriztuko pertsonen ehuneko handia.
- Etxebizitzen barnealdean irisgarritasun-gabezia larriak.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



AHULEZIAK

- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean, emantzipazio tasa eskasa; batez ere, emakumeen kasuan.
- Bizitza-proiektu independenteak hasten dituzten pertsonen ehuneko mugatua; batez ere, emakumeen artean eta desgaitasun-gradu handia aitortuta dutenen artean.
- Ohiko inguruneko mendekotasun-egoeretan ematen den laguntza emakumetzea.
- Mendekotasun-egoeretan arreta eskaintzeko zereginetan familiak duen protagonismoa, prestazio eta zerbitzu publikoak eskuratzeko ezintasunagatik edo/eta horiek aski ez izateagatik.
- Mendekotasun-egoeran dauden eta Mendekotasunaren Autonomiarako eta Arretarako Sistemaren prestazio ekonomikoak eskuratzen ez dituzten pertsonen ehuneko handia.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabilera mugatua eta haren potentzialtasunei etekinik ez ateratzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



AHULEZIAK

- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizitza-eredu independenteak sustatzeko prestaziorik ez izatea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran.
- Bizitza Independenterako Programa ez egotea prestatuta eskubide subjektibo gisa, eta horren ondorioz, unean uneko konpromiso politikoaren eta erabilgarri dagoen aurrekontuaren mende geratzea.
- Desgaitasun fisikoa duten baina erabateko bizi eta gizarte-itxaropenak dituzten pertsonengan instituzionalizazio-egoeren “kronifikazioa” eta bizitza-eredu independenteetarako jauzia egitera bideratutako antolamendu gabezia.
- Desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroak arautuko dituen esparru bateratu baten gabezia.
- Egoitza-zentroetan, bertako erabiltzaileen parte-hartzearekin diseinatutako, ezarritako eta ebaluatutako arreta-eredu baten gabezia, autonomia pertsonala sustatzean eta desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzean oinarritutakoa.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



AHULEZIAK

- ❖ Egoitza-zentroetako erabiltzaileen partaidetza ekonomiko neurrigabea, komunitate ingurunean erabat parte hartzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko baliabide-urritasuna eragiten duena.
- ❖ Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko arretarako baliabide baten gabezia, autonomia pertsonalean, bizitza-eredu independenteen hedapenean eta komunitate ingurunean erabateko parte-hartzean oinarritutakoa.
- ❖ Familia-ingurunean zaintzen prestazio ekonomikoari jarraipena egiteko eta prestazioa kontrolatzeko neurriak sustatzea, mendekotasun-arretaren beste modalitate batzuetara bideratutako ekintzen kaltean.
- ❖ Mendekotasun egoeretan eskaintzen den arretan familiaren zaintzari ematen zaion lege eta gizarte-aitortza eskasa.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



PROPOSAMENAK

- ❖ Ohiko ingurunean bizitza-eredu independente bat izateko bideragarritasuna gizartearen hedatzea, horretarako beharrezkoak diren laguntzak eta baliabideak izanez, eta desgaitasun edo/eta mendekotasun-gradu handiak ezinbestean instituzionalizazioan oinarritutako bizitza-ereduei loturik egon behar izan gabe.
- ❖ Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko politika publikoetan, ekintza positiboko neurriak finkatzea eta sakontzea (mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzak, eskatutako diru-sarreraren mailak, etxebizitza premiaren baldintzan malgutasun handiagoa, etxebizitza egokituen diseinua, egokitu gabeko etxebizitzaren irisgarritasun-baldintzak, etab.).
- ❖ Etxebizitza librearen merkatuan parte hartzean aukera-berdintasuna bermatzeko ekintza positiboko neurriak sustatzea.
- ❖ Etxebizitza-sustapenetan etxebizitza egokituen etengabeko kalifikazioa bermatzea, nahiz eta mugikortasun murrizturik ez duten pertsonen esku utzi aldi baterako, laguntza moduan.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



PROPOSAMENAK

- Etxebizitza-parke bat izatea bultzatzea, beharrezkoak diren irisgarritasun-baldintza guztiak bermatuko dituen, mugikortasun murriztua duten pertsonak dituzten etxebizitza-premiei behar bezalako erantzuna emateko.
- Etxebizitza hutsak alokairu-merkatura txertatzeko programa publikoek ekintza positiboko neurriak jasoko dituztela bermatzea, beharrezkoak diren irisgarritasun-baldintzak betetzeko.
- Laguntza publikoen malgutasun eta sinplifikazio handiagoa bermatzea, etxebizitzetan beharrezkoak diren obrak eta berritze-lanak egiteko, eta hartara, elementu komunak zein pribatiboen premiazko irisgarritasun-baldintzak bermatzeko.
- Etxebizitzaren irisgarritasun-baldintzak bermatzeko lege xedatutako epeak betetzeko beharrezko neurriak sustatzea.
- Jabetza Horizontalaren Legea modu eraginkorrean alda dadin sustatzea, etxebizitzaren irisgarritasun-premiak bermatzeko dauden lege trabak gainditzeko; bereziki, igogailuak ezarri edo ordezkatzeari dagokienez.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



PROPOSAMENAK

- ❖ Familiako zaintzaileen lege-aitortza eta aitortza ekonomikoa egitea, enplegu-politika aktiboei buruzko eskumena duten eragile autonomikoetatik Gizarte Segurantzako afiliazioa, alta eta kotizazioa sustatzeko eta errazteko neurriak onartuz.
- ❖ Familia-zaintzen aitorpen sozial eta politikoa egitea, zaintza profesionalekin alderatu eta gutxiestea saihestuz.
- ❖ Mendekotasun-egoeran dauden geroz eta pertsona gehiagok Mendekotasunaren Autonomiarako eta Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukera izan dezaten sustatzea, zenbatekoak duinduz eta zerbitzuekiko bateragar-ritasunak gehiago malgutuz.
- ❖ Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren araudia aldatzea (sartzeko baldintzak, txertatutako jardunak, erabiltzailearen ekarpena, erabiltzailearen partaidetza handiagoa, zerbitzuaren intentsitatea, beste zerbitzu edo prestazio batzuekiko bateragarritasun-erregimena, etab.), zerbitzuaren potentzi-altasunei modu eraginkorragoan etekina ateratzeko eta pertsona gehiagok erabiltzeko aukera bultzatzeko.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



PROPOSAMENAK

- ✿ Bizitza Independenteterako Programa finkatzea eta bultzatzea. Horretarako, arau erregulatzailer berri bat onartu beharko da eta hari aurrekontu handiagoa eman.
- ✿ Bizitza Independenteterako Programaren prebentzio-izaera sustatzea desgaitasun fisikoa duten eta familiako zaintzaileek emandako arreta jasotzen duten pertsonengan, instituzionalizazioa aukera bakar bihur ez dadin familia-sarea falta denean.
- ✿ Desgaitasun fisikoa duten eta modu iraunkorrean egoitza-baliabide baten erabiltzaileak diren pertsonen artean Bizitza Independenteterako Programa sustatzea, desinstituzionalizazio-prozesu bat hedatzen denean.
- ✿ Lehen Mailako Gizarte Zerbitzuetan Bizitza Independenteterako Programaren ezagutza sustatzea.
- ✿ Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako bizitza-eredu independenteak sustatzeko baliabideak txertatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



PROPOSAMENAK

- ✿ Bizitza Independenterako Programaren errentagarritasun sozial eta ekonomikoari buruzko azterlan bat egitea; tartean, laguntza pertsonalaren eta egoitza-baliabidearen arteko inbertsioa gizartera itzultzearekin alderatzeari buruzko datuak.
- ✿ Laguntza pertsonaleko prestazioek eta programek mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntza-kostu guztia estaliko dutela bermatzea.
- ✿ Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak erregulatzeko araudia onartzea.
- ✿ Autonomia pertsonalera, bizitza-eredu independenteen hedapenera eta komunitate inguruneko erabateko parte hartzera bideratutako egoitza-arretarako eredu bat definitzea.
- ✿ Egoitza-baliabideetan ikuskaritza-zerbitzuen eraginkortasuna sustatzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak erabat bermatzeko.
- ✿ Egoitza-baliabide baten erabiltzaileen autonomia ekonomikoa bermatzea, zerbitzuaren koordainketa eragozpen bihur ez dadin erabateko herritarrak izan daitezen.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.2

OHIKO BIZITOKIA ETA EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA



PROPOSAMENAK

- ❖ Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko arretarako baliabide bat diseinatzea, autonomia pertsonalean, bizitza-eredu independenteen hedapenean eta komunitate-inguruneko erabateko parte-hartzean oinarritutakoa.
- ❖ Instituzionalizazioaren tokian ohiko inguruneari eustera bideratutako politika publikoak sustatzea eta lehenestea.




03 ONDORIOZKO DATUAK

03.3

HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 47,1ek ez dute ikasketarik edo Lehen Hezkuntzako ikasketak baino ez dituzte egin. % 26,5ek, berriz, lanbide-heziketara jo dute eta % 16,7k unibertsitate-ikasketak egin dituzte.

Desgaitasun fisikoa duten elkarriketatuen % 10,8k ez dute ikasketarik (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 3,1 dira ikasketarik gabeak), % 36,3k Lehen Hezkuntza amaitu dute (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 35,3k), % 8,8k Bigarren Hezkuntza amaitu dute (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 20,7k amaitu dute Bigarren Hezkuntza), % 26,5ek lanbide-heziketa egin dute (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 17,6k) eta % 16,7k erdi eta goimailako ikasketak egin dituzte (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 23,3k egin dituzte erdi eta goimailako ikasketak).




03 ONDORIOZKO DATUAK

03.3

HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 72,5ek ordenagailua dute (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 76,3 dira ordenagailua dutenak). Bestalde, % 17,6k ez dute inolako informatika-ezagutzarik. Hala, oinarritzko ezagutzak dituzten pertsonak dira nagusi: % 51,0.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 54,9k gaztelania elebakarrak dira (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 23,9); % 45,1ek, berriz, euskaraz badakitela eta hitz egiten dutela adierazi dute (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 76,1ek adierazi dute hori). Era berean, amahizkuntza ez izan arren, pertsonen % 30,4k ikasi dute euskara (Gipuzkoan, % 57,5ek).



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.3

HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA



AHULGUNEAK

- Desgaitasun fisikoa duten pertsona asko dira ikasketarik gabeak edo Lehen Hezkuntzako ikasketak dituztenak.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen prestakuntza maila baxuak, biztanleria osoaren mailekin alderatuta.
- Lanbide-heziketako ikasketetara sartzeko zailtasunak, bai eta horietako praktikak egiteko ere, laguntza pertsonala behar den kasuetan.
- Beka-sisteman sartzeko zailtasunak.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonak ikastetxeetan erabat txertatzeko gabeziak (ikastetxetik kanpo egiten diren jarduerak, jolas-orduak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.).



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.3

#EZKUNTZA/PRESTAKUNTZA



AHULGUNEAK

- Desgaitasun fisikoa duten pertsonak dituzten informazioaren eta komunikazioaren teknologien ezagutza eta erabilera maila baxuak, biztanleria osoaren mailekin alderatuta.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoki-tutako teknologiak sustatzeko baliabide-urritasuna, herritar ugariaren artean eten digitala sortzeko arriskuarekin.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen euskara-ezagutza txikiagoa, biztanleria osoaren mailarekin alderatuta.
- Desgaitasun fisikoa duten eta ama-hizkuntza euskara ez duten pertsonen euskara-ezagutza barnerratzeko maila txikiagoa, biztanleria osoaren mailarekin alderatuta.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.3

HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA



PROPOSAMENAK

- Desgaitasuna duten pertsonak hezkuntza-sisteman (bereziki, goi-mailakoetan) sustatzeko ekintza positiboko neurriak txertatzea.
- Egiazki inklusiboa den hezkuntza-sistema bat eratzeko lan egitea.
- Hezkuntza-instalazioetan irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzea; eskolaz kanpoko jarduerak eta garraiobideak barne.
- Desgaitasun fisikoa duten ikasleek beharrezkoak dituzten laguntza tekniko eta pertsonalak bermatzea (laguntzaile gehiago izatea, materialak egokitzea, teknologiak egokitzea, etab.).
- Bizitza osoan zehar hezkuntzarako eskubidea bermatzea, dagozkion ekintza positiboko neurriak bultzatuz.
- Hezkuntza maila guztietako ikasleen artean askotarikotasun eta inklusio balioak sustatzea; bereziki, adin goiztiarretan.
- Irakasleen artean askotarikotasun eta inklusio-balioetan oinarritutako prestakuntza sustatzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.3

HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA



PROPOSAMENAK

- Curriculum-egokitzapenean sakontzea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gizarteratzeari eta autonomia pertsonalari lehentasuna emanez.
- Hezkuntza sistemaren (bereziki, lanbide-heziketa eta unibertsitate-arloa) eta lan-merkatu arruntaren arteko koordinazioan eta jautzian ekintza positiboko neurriak sustatzea.
- Desgaitasun fisikoa duten eta hala eskatzen duten pertsonen beharrezko hezkuntza-laguntzak ematea, euren praktika profesionalak egin ditzaten.
- Bizitza osoan zehar irakaskuntzarako sarbidea sustatzea, komunitate-partaidetzarako, ahalduztzeko eta autonomia pertsonalaren sustapenerako tresna gisa.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean eten digitala saihesteko baliagarriak izango diren neurriak sustatzea (laguntza-produktuak, laguntza pertsonalak, ohiko baliabiderako jautziaren aurretiko hasierako prestakuntza, etab.) eta gai horretako ohiko prestakuntza-baliabideetarako sarbidea ematea.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.3

HEZKUNTZA/PRESTAKUNTZA



PROPOSAMENAK

- ■ ■ ■ ■ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko beharrezkoak diren laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza publikoak sustatzea.
- ■ ■ ■ ■ Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta ezagutza sustatzea egoitza-baliabideen erabiltzaileen artean.
- ■ ■ ■ ■ Ekintza positiboko neurriak ezartzea eta euskara ikasteko aukera-berdintasuna bermatzea.
- ■ ■ ■ ■ Desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona horiek ordezkatzen dituzten erakundeen parte hartzea sustatzea hezkuntza-politiken diseinuan, hedapenean eta ebaluazioan.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA

Elkarrizketatuen % 20,6 lanean edo enplegu bila dabilta; % 77,4, berriz, modu aktiboan lan bila dabilta.

Lanean dabiltzanen edo modu aktiboan lan bila dabiltzanen % 81,0ek unibertsitate-ikasketak edo lanbide heziketakoak egin dituzte. Pentsiodunen % 57,0k, berriz, ez dute ikasketarik edo Lehen Hezkuntzako ikasketak baino ez dituzte egin.

Oraintxe lanean ez dabiltzan elkarrizketatuen % 30,2k ez dute inoiz lanik egin.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA



AHULGUNEAK

- ❖ Jarduera-tasa txikia; batez ere, desgaitasun-gradu handiko pertsonen artean.
- ❖ Goi-mailako prestakuntzaren gehiegizko beharra, enplegu duin bat izateko.
- ❖ Desgaitasun fisikoa duten eta inoiz lan-jarduera ordaindurik egin ez duten pertsonen kopuru handia.
- ❖ Enplegu babestuak enplegu arruntaren gainetik duen nagusitasuna.
- ❖ Politika publikoak (bereziki, laguntza-gaietan), enplegu arruntaren tokian enplegu babestua finkatzen eta bultzatzen dutenak.
- ❖ Hezkuntza-sistemaren eta enplegu-sistemaren arteko koordinazio-urritasuna, enplegu ireki, inklusibo eta irisgarria izateko eskubidea bermatzeko.
- ❖ Desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruz eskuragarri dauden datuen urritasuna eta banakatze eskasa.
- ❖ Atzerantz egiten duen araudia plangintza-arloan, enplegu ireki, inklusibo eta irisgarria izateko eskubidea bermatzeari dagokionez.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA



ARHULGUNEAK

-  Gizarteak desgaitasuna duten pertsonen enplegua enplegu babestuekin lotzeko duen joera.
-  Enplegu babestuaren ereduak enplegu duin bat izateko eskubidea bermatzeko dituen gabeziak.
-  Desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean auto-enpleguari ematen zaion sustapen eta bultzada urria.
-  Lan-merkatu arrunteko lanpostuek izaten dituzten irisgarritasun-gabeziak.
-  Enplegu-zentro bereziek enplegu arrunterako jauzian duten funtzioa betetzeko erakusten duten urritasuna.
-  Enplegu-zentro bereziak sortzeko aintzat hartu ziren helburuak eta ezaugarriak hutsaltzeko dauden arriskuak.
-  Okupazio-zentroetan, lan-jarduerak beharrezko duintasun-baldintzak bermatu gabe gauzatzeko dauden arriskuak.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA



AHULGUNEAK

- ■ ■ ■ ■ Eguneko zentroen, okupazio-zentroen, enplegu-zentro berezien... arteko jauzi-prozesuan egon ohi den zurruntasuna; eta desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera pertsonalera eta bilakaerara egokitzerik eza.
- ■ ■ ■ ■ Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzea bultzatuko duen Enpleguaren Euskal Estrategiarik ez izatea.
- ■ ■ ■ ■ Enpresetan praktikak egin ondoren, desgaitasun fisikoa duten pertsonen plazak lor ditzaten bideratutako pizgarrien urritasuna.
- ■ ■ ■ ■ Administrazio Publikoek ez betetzea desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuota.
- ■ ■ ■ ■ Enplegu publikoa hautatzeko prozesuetan dauden gabeziak.
- ■ ■ ■ ■ Euskal Enplegu Sistemarenak diren funtzioak kanporatzea.
- ■ ■ ■ ■ Desgaitasun fisikoa dutenen kolektiboarentzat enplegu-baliabideak espezializatzea, ohiko baliabide publikoen kaltean.
- ■ ■ ■ ■ Pentsioak eta lan-jarduera ordaindua gauzatzea bateratzeko neurrien urritasuna, bai eta baldintza eta prozeduren gehiegizko zurruntasuna ere, posible den orotan.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA



PROPOSAMENAK

- Desgaitasuna duten pertsonak lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarri batean lana izateko eskubidea sustatzera bideratutako lidergo politikoa sustatzea.
- Merkatu-azterketak egitea, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat etorkizuneko enplegu-hobiak aztertzeke.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen enplegarritasunari eta gaitasunari mesede egingo dioten berrikuntza-politikak sustatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzea bultzatuko duen Enpleguaren Euskal Estrategia bat osatzea, aurretiko egoeraren diagnostiko bat ere eginez.
- Hezkuntza-sistemaren eta enplegu-sistemaren arteko koordinaziozko neurriak eta ekintza positiboko neurriak sustatzea, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartuko direla bermatzeko.
- Enplegu ireki, inklusibo eta irisgarri bat izateko eskubidea bermatuko duen araudia berrikustea sustatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuoten sistema berrikustea sustatzea; bereziki, neurri alternatiboei dagokienez.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA



PROPOSAMENAK

- Desgaitasuna duten pertsonen enplegu ireki, inklusibo eta irisgarria izateko duten eskubidea sozialki balioan jartzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen enplegu ireki, inklusibo eta irisgarria izateko duten eskubidearen balioa enpresa-ehunean bultzatzea.
- Euskal Enplegu Sistemak enplegu-politika aktiboen arloan dituen gaitasunak eta tresnak optimizatzea, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntan txertatzea sustatzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonen ohiko orientazio eta bitartekaritza-baldintzak izateko aukera bermatzea, espezializazioa gaindituz eta Euskal Enplegu Sistemak gai honetan dituen eskumenak zuzenean onartuz.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean auto-enplegua eta ekintzailatza sustatzea.
- Desgaitasun fisikoa duten langileek etengabeko prestakuntzarako eta aukera-berdintasunerako duten eskubidea bermatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko estatistika-datuetan funtsezko aldagaietan oinarritutako banakatze bat egitea; bereziki, enplegu arruntari eta enplegu babestuari buruzkoa, politika publikoak planifikatu eta bideratu ahal izateko.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.4

LAN-EGOERA



PROPOSAMENAK

- Enplegu-zentro berezietan lan-eredua berrikustea, funtsezko gaiei dagokienez, desgaitasun fisikoa duten pertsonen enplegu duina izateko duten eskubidea bermatzeko (soldata-baldintzak, sustapena, enplegu arrunterako jauzia, erabakietan parte hartzea, etab.).
- Enplegu babestutik lan-merkatu arrunterako jauzia sustatzea.
- Okupazio-baliabideen erabiltzaileen eskubideak bermatzeko neurriak sustatzea.
- Enplegu-eskaintza publikoetan erreserba-kuotak betetzen direla bermatzea, bai eta hautapen-prozeduretan beharrezko egokitzapenak egiten direla bermatzea ere. Era berean, desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak egokitzeko neurriak txertatzea; nola gauzatu beharreko funtzioetan, hala espazio zein elementu fisikoetan.
- Administrazio Publikoek desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuota betetzen dutela bermatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoan enplegu arrunt modalitatean jarduteko aukera modu eraginkorrean sustatzen lagunduko duen arau-esparrua sustatzea, funtzio publikoaren arloan.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.4

LAN-EGOERA



PROPOSAMENAK

- Administrazio Publikoetako lan-poltsen kudeaketan ekintza positiboko neurriak sustatzea, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan jardun ahal izatea sustatzeko.
- Lan-merkatuan lanpostuen irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzea.
- Pentsioak eta lan-jarduera ordaindua bateragarriak izan daitezen sustatzeko neurriak bultzatzea (baldintzak eta prozedurak malgutzea, enplegurako bultzagarriak, zerga-pizgarriak, etab.).
- Desgaitasuna duten pertsonentzat ekintza positiboko neurriak bultzatzea negoziazio kolektiboan (ordutegi malgua, bateratze-neurriak, etab.).
- Sindikatuen konpromiso handiagoa desgaitasuna duten pertsonen lan-baldintzei dagokionez, bai eta lana lan-ingurune irekian, inklusiboan eta irisgarrian izateko eskubideari dagokionez ere.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.5

EGOERA EKONOMIKOA


Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 75,5ek gehienez ere 1.000 €-ko diru-sarrerak dituzte hilean; % 49,0k, berriz, 700 €-tik beherakoak.

Pentsio eta prestazioetatik hirugarren pertsonaren laguntzagatiko osagarria kenduz gero, % 133,3 gehiago izango dira hilean 500 euroko diru-sarrerak gainditzen ez dituzten pertsonak.

Desgaitasun fisikoa duten elkarrizketatuen % 81,4k pentsio edo familia-prestazioren bat jasotzen dute. Horietako % 44,6k, hain zuzen, lan-jardueraren bat egikaritzeagatik (lan-ezintasun iraunkorreko pentsioa eta erretiro-pentsioa).

Desgaitasun fisikoa duten elkarrizketatuen % 13,7k Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dute, nahiz eta % 36,0k ez duten gainditzen prestazio horrek bermatutako zenbatekoa.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 13,7 pobrezia larrian bizi dira (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 4,3 bizi dira pobrezia larrian); % 12,7 pobrezia erlatiboan bizi dira (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 16,8); eta %72,6 pobreziarik gabeko egoeran (Gipuzkoako biztanleria osoari dagokionez, % 78,9 bizi dira era horretan).



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.5

EGOERA EKONOMIKOA

Desgaitasuna duten eta egoitza-baliabideren baten erabiltzaileak diren pertsonen % 40,0k dute pobrezia larria; % 15,0, berriz, pobrezia erlatiboan bizi dira.

Desgaitasun fisikoa duten eta lanean ari diren pertsonen % 33,4 pobrezia larrian edo erlatiboan bizi dira.

Bizikideen diru-sarrerak kontuan hartu ezean, pobrezia larrian dauden pertsonen kopurua % 13,7tik % 30,4ra igarotzen da; pobrezia erlatiboan daudenena, bestalde, % 12,7tik %25,5era; eta pobreziarik ez dutenen kopurua % 72,5etik % 34,3ra jaisten da.




03 ONDORIOZKO DATUAK

03.5

EGOERA EKONOMIKOA

ATULGUNEAK

- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen hilabeteko diru-sarreraren maila baxua.
- % 33tik % 64ra arteko desgaitasun-gradua duten pertsonen duten zaugarritasun ekonomikoko egoera.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-baliabideen erabiltzaileen zaugarritasun ekonomikoko egoera, diru-sarrera txikia dutelako eta zerbitzuak eskatzen duen ekarpen ekonomikoa handia delako.
- Desgaitasun fisikoaren gainkostu ekonomikoa.
- Pentsio eta prestazio batzuek hirugarren pertsonen laguntzagatiko osagarriekiko duten menderotasun ekonomikoa, horiek asmo baterako laguntzak direla kontuan izanda.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erabilera urriak, diru-sarreraren mailari erreparatuta egon daitezkeen onuradunen kopuruarekin alderatuta.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.5

EGOERA EKONOMIKOA



AHULGUNEAK

- ☼ Sema-alabaren bat euren kargura edukitzeagatik prestazioren bat jasotzen dutenek diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko ezintasuna.
- ☼ Pobrezia-indize handiak desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboan.
- ☼ Pobrezia-indize handiak desgaitasun fisikoa duten eta lanean ari diren pertsonen artean.
- ☼ Desgaitasuna duten pertsonen euren bizikidetza-unitatearekiko duten mendekotasun ekonomikoa, mendekotasun fisikoaz gainera. Bizitza proiektu independenteei ekiteko aukera bermatzeko baliabide ekonomikoen urritasuna.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.5

EGOERA EKONOMIKOA



PROPOSAMENAK

- Ekintza positiboko neurriak, % 33tik % 64ra arteko desgaitasun-gradua duten pertsonek pentsioen sistema publikoa balia dezaten, bai eta enplegu-sistemaren prestazioak edo diru-sarrerak bermatzeko sistema ere balia dezaten.
- Hirugarren pertsona bat laguntzeagatiko osagarrien bidezko pentsio eta prestazio jakin batzuek eta Mendekotasunaren Autonomiarako eta Arretarako Sistemak desgaitasuna dela tarteko emandako prestazioek mendekotasun egoeran dauden pertsonek eskatutako laguntza osoaren kostua estaliko dutela bermatzea.
- Familia-prestazio eta pentsioen zenbatekoa duintzea; bereziki, kotizatu gabeko pentsioarena eta seme-alaba karguan edukitzeagatiko prestazioarena.
- Egoitza-baliabideen erabiltzaileen artean diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko aukera sustatzea, baldin eta desinstituzionalizazio-prozesu bat edo bizitza independente bat hastera badoaz.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.5

EGOERA EKONOMIKOA



PROPOSAMENAK

- Desgaitasunaren gainkostuaren osagaia txertatzea diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jaso ahal izateko baldintzen artean, bai eta gizarte-prestazio eta laguntza guztiak jaso ahal izateko baldintzen artean ere.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren alorrean, seme-alaba kargura izateagatiko prestazioa eta pentsioa parekatzea, bizikidetza-unitate independenteak eratuko direla bermatzeko.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketan pentsiodunen bizikidetza-unitateei izapideak errazteko eta sinplifikatzeko neurriak txertatzea; betiere, kudeaketaren eta prozeduraren izaera publikoari eutsiz.
- Desgaitasuna duten pertsonen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako baliabide eta zerbitzuetara egin beharreko ekarpen ekonomikoaren edo ko-ordainketa sistemaren berrazterketa sakona egitea.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.5

EGOERA EKONOMIKOA



PROPOSAMENAK

- ❖❖❖ Desgaitasun fisikoa duten eta egoitza-baliabidearen erabiltzaileak diren pertsonen euren komunitate-ingurunearekin parte hartuz bizimodu duina izan dezaten beharrezkoak dituzten diru-sarrerak bermatzea.
- ❖❖❖ Enplegu babestuaren alorrean soldata-baldintza duinak bermatzea.
- ❖❖❖ Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren alorrean dagoen pentsiodunen bizikidetzak unitate independentearen kontzeptua beste baliabide, zerbitzu eta prestazio batzuetara zabaltzea, diru-sarreraren eta ondasunen zenbaketarako.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.6

LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK

Desgaitasun fisikoa duten elkarriketatuen % 73,5ek laguntza-produkturen bat baliatzen dute, eta horietako gehienek (% 77,3) bat baino gehiago, gainera.

Mugikortasun murriztua duten elkarriketatuen % 28,4k “bonotaxi” laguntza jasotzen zuten hura indarrean zegoenean.


Kasuen % 45,1ean desgaitasun fisikoa duen pertsonak edo haren familia-unitateak ibilgailu partikularra daukate. Kasuen % 30,4an desgaitasuna duen pertsona bera da gidaria, eta kasuen % 47,8an ibilgailua egokitu behar izan dute.

Mugikortasun murriztua duten elkarriketatuen % 45,9k desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela dute.



LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK

- Laguntza-produktuak eskuratzeko programen eta laguntzen eskubide subjektiboaren erabateko izaera-gabezia.
- Atzerapausoak laguntza-produktu kalitatezkoak eta desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren premiei egokitutakoak eskuratzeko laguntza publikoetan.
- Laguntza-produktuen alorrean, araudi-ekimenen atzerapausorako joera.
- Laguntza-produktuen eta horien mantentze-lanen gehiegizko kostu ekonomikoa.
- Laguntza-produktuen mantentze-lanetarako baliabide urriak merkatuan, eta zerbitzu integral eta iraunkorrik eza.
- Azken hartzaileek laguntza-produktuen alorrean berrikuntzak eskuratzeko aukera eskasa.
- Etxean Programan, laguntza-produktuetara bideratuko baliabideen aldean kudeaketara bideratutako baliabideen gehiegizko pisua.
- Etxean Programaren hainbat baldintza, laguntza-produktuak eskuratzeko aukerak galarazi edo mugatzen dituztenak.




03 ONDORIOZKO DATUAK

03.6

LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK

ATULGUNEAK

- Aurretik erabilitako eta berreskuratzeko moduko laguntza-produktuak erabiltzeari lehentasuna emateko neurriak sustatzea, eta ez berriak erabiltzeari.
- “Bonotaxi” laguntzaren indargabetzea.
- Laguntza-produktuen eta mugikortasunerako laguntzen arloan eskumenak dituzten administrazioen arteko koordinazio-urritasuna.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen araudia berrikustea, hedatzeko asmoz; horrek jatorrizko helburuak indargabetzeko arriskua ekar dezake.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen erabilera ezegokia.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen arteko eten digitala desagerraraztea ekarriko duten informazio-sistemen eta gailu teknologikoen erabilera bermatzeko eta euren arteko komunikazio alternatiborako moduak bideratzeko beharrezko laguntza teknologikoak bermatzeko baliabide urriak.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.6

LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK



PROPOSAMENAK

- ✿✿✿✿✿ Laguntza-produktu duin eta egokiak izateko eskubide subjektiboaren legezko era bateko aitorpena.
- ✿✿✿✿✿ Etxean Programa arautuko duen arau berria osatzea, laguntza-produktuak eskuratzeari dagokionez, gaur egun horiek eskuratzeko dauden oztopoak gaindituta, produktu duin eta kalitatezkoak bermatu eta autonomia pertsonala eta erabateko gizarteratzea sustatzera bideratutakoei lehentasuna emanda.
- ✿✿✿✿✿ Laguntza-produktuen foru-programaren aurrekontua bultzatzea, kudeaketarekin lotutako alderdien gainetik aurrekontua eskuratzeari lehentasuna emanez.
- ✿✿✿✿✿ Administrazioak Etxean Programaren kudeaketarekin lotutako hainbat alderditan protagonismo handiagoa hartzea.
- ✿✿✿✿✿ Desgaitasuna duten pertsonen laguntza-produktuak kostu ekonomiko duinean eskuratzeko eta mantentzeko formuletan aurrerapausoak ematea.
- ✿✿✿✿✿ Laguntza-produktuen alorrean ikerketa eta berrikuntza bultzatzea, azken hartzaileek horiez gozatzeko aukera izan dezaten sustatuz.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.6

LAGUNTZA-PRODUKTUAK ETA MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK



PROPOSAMENAK

- ✿✿✿✿✿ Laguntza-produktuak mantentzeko zerbitzu integral eta iraunkorrak izango direla bermatzea.
- ✿✿✿✿✿ Laguntza-produktuen eta mugikortasunerako laguntzen arloan eskumenak dituzten administrazioen artean koordinazio handiagoa eta eraginkorragoa bultzatzea.
- ✿✿✿✿✿ Desgaitasuna duten pertsonen komunitatean parte hartzea eta mugikortasuna izatea errazteko laguntzak berreskuratzea, oraintxe garraio publiko kolektiboan dauden gabeziak gaindituz.
- ✿✿✿✿✿ Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen orokortzea, eta horren ondorioz, baita desnaturalizazioa ere, galaraztea.
- ✿✿✿✿✿ Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen eta erreserbatutako plazen erabilera egokiari buruzko kanpainak sustatzea; nola herritar guztien artean, hala desgaitasuna duten pertsonen eta euren familien kolektiboan.
- ✿✿✿✿✿ Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen eta erreserbatutako plazen erabilera egokiaren gaineko eskumena duten agintaritzek kontrol handiagoa izatea bultzatzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.7

AISIALDIA ETA KOMUNITATEKO PARTAIDETZA

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 74,5 oporretara joaten dira urtean zehar (Gipuzkoako biztanleei dagokienez, % 70,2), nahiz eta horien % 57,9k elkartu erakundeak antolatutako Elkarbidean programaren bidez egiten dute soilik, edo, bestela, hirugarren sektore sozialeko beste erakunde batzuek antolatutako programen bidez.

Desgaitasun fisikoa duten elkarrizketatuen % 21,6k ez dute parte hartzen normalean beste aisialdi-jarduera batzuetan.

Elkarrizketatutako pertsonen % 91,2k baieztatzen dute desgaitasun fisikoa duten pertsonen oztopo handiagoak dituztela aisialdiko jardueretan parte hartzeko gainerako biztanleekin alderatuta.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.7

AISIALDIA ETA KOMUNITATEKO PARTAIDETZA



AHULGUNEAK

- Ingurune, ondasun eta zerbitzuen irisgarritasunaren arloko gabeziak, desgaitasun fisikoa duten pertsonen komunitateko aisialdiko jardueretan berdintasun-baldintzetan parte har dezaten.
- Aisialdiaren pisu kuantitatiboaren eta kualitatiboaren galera, politika zein neurri publikoetan.
- Aisialdia erabateko gizarteratzea sustatzeko funtsezko eskubidetzat ikustearen gabezia.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte hartzen duten aisialdiko jardueren izaera inklusiboa izatearen gabezia.
- Hirugarren sektore sozialeko erakundeek antolatutako aisialdiko programen gehiegizko mendeotasuna, komunitateko aisialdiko jardueretan parte hartzearen kaltean, beharrezkoak diren laguntza pertsonalak bermatzearen bidez.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.7

AISIALDIA ETA KOMUNITATEKO PARTAIDETZA



PROPOSAMENAK

- ✿✿✿✿ Aisialdiak desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea bermatzeko funtsezko eskubide gisa duen garrantzia bermatzea.
- ✿✿✿✿ Aisialdirako eskubidea txertatzea gizarte-zerbitzuen euskal sistema arautzen duten arauetan, eta, halaber, hori sustatzeko programak eta neurriak bultzatzea.
- ✿✿✿✿ Autonomia pertsonalaren sustapena eta desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako aisialdiko programen izaera inklusiboa txertatzea, komunitateko aisialdiko jarduerak sartzea bultzatuz.
- ✿✿✿✿ Aisialdirako eskubidea gauzatzeko beharrezkoak diren ingurune, ondasun eta zerbitzuak irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan egiten direla eta pertsona guztientzat diseinatzen direla bermatzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.7

AISIALDIA ETA KOMUNITATEKO PARTAIDETZA



PROPOSAMENAK

- 🌟 Turismo inklusibora bideratutako neurriak sustatzea, aisialdirako eskubidea bermatze aldera.
- 🌟 Kultura inklusibora bideratutako neurriak sustatzea, aisialdirako eskubidea bermatze aldera.
- 🌟 Kirol inklusibora bideratutako neurriak sustatzea, aisialdirako eskubidea bermatze aldera.
- 🌟 Beharrezkoak diren laguntza pertsonalak sustatzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonen komunitateko aisialdiko jardueretan parte har dezaten bermatzeko.
- 🌟 Jarduera-protokoloak bultzatzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonen komunitateko aisialdiko jardueretan berdintasun-baldintzetan parte har dezaten bermatzeko.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.8

GARRAIOA

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 2,2k garraio publikoa erabiltzen dute eskuarki, % 14,7k garraio pribatua, eta % 40,2k biak erabiltzen dituzte.

Normalean garraio publikoa erabiltzen dutenen artean, % 79,7k autobusa erabiltzeko joera dute bakarrik edo beste garraiobide batekin batera.

Desgaitasun fisikoa duten elkarriketatuen % 34,3k garraio publikoa erdipurdikotzat, txartzat edo oso txartzat jotzen dute.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.8

GARRAIOA



ATULGUNEAK

- Garraiobide publikoan irisgarritasun unibertsalaren gabezia.
- Garraio-instalazioetan eta azpiegituretan irisgarritasun unibertsalaren gabezia.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako garraio publiko irisgarririk ez egotea, bereziki hiriartekoetan edo ibilbide luzekoetan.
- Erosotasun eta segurtasun eskasia garraio publiko “irisgarrian”.
- Pertsona guztientzako diseinuaren oinarria ez betetzea garraiobideak hornitzen dituzten enpresen eskutik.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzeko zerbitzu eskasak garraio-azpiegituretan.
- Garraio publikoa erabiltzeko erreserba-sistemetan aukera-berdintasuna ez betetzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.8

GARRAIOA



PROPOSAMENAK

- Irigarritasun unibertsalaren oinarria bermatzea garraiobide eta garraio-azpiegitura guztietan.
- Ibilgailuak eta gainerako garraio-elementuak eta azpiegiturak hornitzen dituzten enpreetan neurriak sustatzea pertsona guztientzako diseinuaren oinarria bermatzeko.
- Irigarritasun unibertsalaren eta garraio publikoa erabiltzeko erreserba-sistemetan aukera-berdintasunaren oinarriak bermatzea.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonen erreserbatutako espazioak erabiltzea bermatzera bideratutako neurriak sustatzea.
- Garraio-azpiegiturretan eta ekipamenduetan mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzeko zerbitzuak erabat ezartzen direla bermatzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.8

GARRAIOA



PROPOSAMENAK

- Irigarritasuna eta inklusibotasuna erabat txertatzea mugikortasunaren arloko politika publikoetan.
- Garraio publiko irigarria egotea eta eskuragarria izatea bermatzea ordutegi mugarik edo bestelako mugarik gabe.
- Ekintza positiboko neurriak sustatzea, garraio publikoko irigarritasun-gabeziak konpentsatzera bideratuta.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.9

OSASUNA

Elkarrizketatutako pertsonen % 39,2 mediku-azterketara joaten dira sei hilean edo urtean behin; % 38,2k, berriz, osasun-zerbitzuak erabiltzen dituzte horiek behar dituztenean soilik.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 21,6 errehabilitaziora joaten dira, nahiz eta horien % 22,7k soilik erabiltzen dituzten zerbitzu publikokoak.

Elkarrizketatutako pertsonen % 79,3k oso ontzat edo ontzat jotzen dute jasotako osasun-laguntza.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.9

OSASUNA



ATULGUNEAK

- Osasun-instalazioen eta zerbitzuen irisgarritasun gabeziak.
- Osasun-sistemako baliabideak erabiltzen dituen pertsonaren ekarpen ekonomikoa zabaltzeko araudi joera.
- Bermeen gabezia errehabilitazio publikoa jasotzeko eskubidean.
- Osasun-arretaren gabeziak desgaitasun fisikoa duten pertsonen autonomia pertsonalaren presuntzioan eta sustapenean.
- Mendekotasun-egoerei aurrea hartzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko Arreta Goiztiarraren sare publiko eskasa.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.9

OSASUNA



PROPOSAMENAK

- Osasun-instalazioen eta zerbitzuen irisgarritasun-baldintza unibertsalak bermatzea.
- Osasun-sistemako zerbitzuak eskuratzea bermatzea, ekarpen ekonomikorik egin behar izan gabe.
- Legez aitortutako errehabilitazio publikoaren eskubidea bermatzea.
- Osasun-sistema publikoak bere gain hartzea erakunde pribatuek eskainitako osasun-zerbitzuak.
- Erantzukizun publikotik bermatzea Arreta Goiztiar unibertsal, erabateko, kalitatezko eta koordinatua osasun-sistemaren, hezkuntza-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen sistemaren artean.
- Pazientea ardatz duen osasun-arreta bermatzea, eta haren gaitasunak eta autonomia bultzatzea.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.10

GIZARTE-BAZTERKETAREN DIAGNOSTIKOA

Desgaitasun fisikoa duten elkarriketatuen artean, % 30,4 gizarteratuta daude (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 55,8), % 36,3 gizarte-bazterketako arrisku-egoeran daude (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 31,8), eta % 33,3 gizarte-bazterketako egoeran daude (Gipuzkoako biztanleriari dagokionez, % 12,4).

Sortzetiko desgaitasuna duten elkarriketatutako pertsonen artean, % 41,2 gizarte-bazterketako egoeran daude (gerora sortutako desgaitasuna dutenei dagokionez, % 25,5), eta % 37,3 gizarte-bazterketako arriskuan (gerora sortutako desgaitasuna dutenei dagokionez, % 35,3).

% 65eko edo hortik gorako desgaitasuna duten elkarriketatuen artean, % 41,9 gizarte-bazterketako egoeran daude (% 33 - % 64 arteko desgaitasuna dutenei dagokionez, % 10,7).

Desgaitasun fisikoa izanik egoitza-baliabide bat erabiltzen duten elkarriketatuetako inor ez dago gizarteratze-egoeran (etxebizitza partikular batean bizi direnei dagokionez, % 37,8), % 25 gizarte-bazterketako arriskuan daude (etxebizitza partikular batean bizi direnei dagokionez, % 39) eta % 75 gizarte-bazterketako egoeran daude (etxebizitza partikular batean bizi direnei dagokionez, % 23,2).



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.10

GIZARTE-BAZTERKETAREN DIAGNOSTIKOA


Bizitza Independenterako Programa baliatzen duten elkarrizketatutako pertsonen artean, % 55,6 gizarteratuta daude, % 11,1 gizarte-bazterketako arriskuan eta % 33,3 gizarte-bazterketako egoeran.

Ikasketarik ez duten elkarrizketatutako pertsonen artean, % 72,7 gizarte-bazterketako egoeran daude.

Pentsiodunak diren elkarrizketatutako pertsonen artean, % 38 gizarte-bazterketako egoeran daude; lanean daudenei dagokionez, % 16,7 eta langabezia daudenei dagokionez, %13,3.

Pobrezia larriko egoeran dauden elkarrizketatutako pertsonen artean, % 64,3 gizarte-bazterketako egoeran daude; pobrezia erlatiboan daudenei dagokionez, % 15,4 eta pobreziarik ez dutenei dagokionez, % 31,1.

Gizarte-bazterketako egoeretan, funtsezko pisua gizarte-faktoreek dute. Izan ere, elkarrizketatutako pertsonen % 78,5en kasuan, gizarte-dimentsioarekin lotutako adierazleak ahultasun- edo bazterketa-egoeran daude; bizikidetza-dimentsioari dagokionez, % 60,8, eta dimentsio pertsonalari dagokionez, % 45,1.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.10

GIZARTE-BAZTERKETAREN DIAGNOSTIKOA



AHULGUNEAK

- Desgaitasuna gizarte-bazterketaren arloarekin ez lotzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen partaidetza eza gizarte-bazterketako egoeran edo gizarte-bazterketako arrisku-egoeran dauden taldeak gizarteratzeko prozesuetara bideratutako programetan eta baliabideetan.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen ehuneko handia egotea gizarte-bazterketako egoeran edo gizarte-bazterketako arrisku egoeran.
- Desgaitasuna duten pertsonen komunitateko jardueretan parte hartzea eragozten edo oztopatzen duten gizarte-trabak egotea, gizarte-bazterketako egoerak eraginez.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen prestakuntza-garapen erabatekoa oztopatzen duten eta gizarte-bazterketako egoerak sortzen dituzten hezkuntza-sistemaren gabeziak.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.10

GIZARTE-BAZTERKETAREN DIAGNOSTIKOA



AHULGUNEAK

- Autonomia pertsonala eta komunitateko parte-hartzea sustatzera bideratuta ez dagoen egoitza-arretako eredua, gizarte-bazterketako egoerak sortuz.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen enplegu duina eskuratzearen maila eskasa, gizarte-bazterketako egoerak sortuz.
- Baliabide ekonomiko urriak eta gainkostua desgaitasun fisikoari dagokionez, gizarte-bazterketako egoerak eraginez.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.10

GIZARTE-BAZTERKETAREN DIAGNOSTIKOA



PROPOSAMENAK

- **Hezkuntza inklusiboa**, ikasle guztien nortasuna ahal den eta gehien garatzea sustatuko eta ikasleen premiak aseko dituen hezkuntza-eskaintza eta ingurunea bermatuko dituen.
- **Enplegua lan-ingurune inklusibo, arrunt eta irisgarri batean**, berdintasuneko eta bereizketarik ezeko printzipioak erabat bermatzeko.
- **Bizitza-eredu independentea**, desgaitasun fisikoa duten pertsonen bizitzeko egoitza eta non eta norekin bizi hautatzeko aukera izan dezaten, bizi-sistema jakin baten arabera bizi izan behar izan gabe; horretarako, beharrezkoak eta egokiak diren baliabide eta laguntza guztiak izan behar dituzte, komunitateko bizitzan partaidetza aktiboa bermatzeko.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.10

GIZARTE-BAZTERKETAREN DIAGNOSTIKOA



PROPOSAMENAK

👤 **Pertsona guztientzako diseinua eta irisgarritasun unibertsala**, inguru, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, tresna, erreminta eta gailu guztiak (sortzen direnetik, egokitu behar izan gabe eta diseinu espezializaturik izan gabe) ulergarriak, erabilgarriak eta praktikagarriak izan daitezen pertsona ororentzat, segurtasun eta erosotasun baldintzetan, eta ahal bezain modu autonomo eta naturalenean.

👤 Desgaitasun fisikoa duten pertsonen **partaidetza erabatekoa eta eraginkorra** haiei eragiten dieten erabaki publikoak hartzean, haien kabuz edo ordezkaritza-erakundeen bitartez, norbera eta taldea ahalduntzeko tresna gisa.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.11

GENEROAREN ETA DESGAITASUN FISIKOAREN PERTZEPZIOA



Desgaitasun fisikoa duten eta bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonen % 87,5 emakumeak dira.



Gerora sortutako desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean, % 43,1 emakumeak dira, eta % 56,9 gizonak.



Etxebizitza partikular batean ezkontidea edo bikotea ez den familiarteko batekin bizi diren pertsonen % 52,9 emakumeak dira, eta %47,1 gizonak.




Desgaitasun fisikoa duten eta ikasketarik ez duten edo Lehen Hezkuntza soilik amaitu duten pertsonen % 56,3 emakumeak dira.



Desgaitasun fisikoa duten elkarriketatu emakumeen % 62,2k bizitzan zehar ordaindutako lan-jardueraren bat egin dute, eta gizonen % 76,5ek.



Desgaitasun fisikoa duten eta pobrezia-egoeran dauden pertsonen % 55,6 emakumeak dira.



03 ONDORIOZKO DATUAK


03.11

GENEROAREN ETA DESGAITASUN FISIKOAREN PERTZEPZIOA



ARHULGUNEAK

- Desgaitasun fisikoa duen emakumearen bereizketa bikoitza: emakume izateagatik eta desgaitasuna izateagatik.
- Bereizketa bikoitzaren ikusezintasuna; hori dela eta, ez dira gauzatzen gizarte eta berdintasun-politikak, zeharkakotasunetik, desgaitasun fisikoa duten emakumeek bizi duten egoerari erantzun egokia emateko.
- Desgaitasun fisikoa duten emakumeek eta gizonak jasotako hezkuntza-aldeak familiako eta gizarteko rolari dagokienez; desgaitasun fisikoa duten emakumeek gizarte-harremanen sare txikiagoa dute, eta gizarte-partaidetza eskasagoa.
- Desgaitasun fisikoa duten emakumeek laneratze urriagoa dute, eta, beraz, ondorio negatiboak dituzte beren baliabide ekonomikoak bermatzeko, orainaldian zein etorkizunean.
- Desgaitasun fisikoa duten emakumeen arrisku handiagoa genero-indarkeriako biktima izateko, eta beste oztopo batzuk egotea ohiko baliabide eta zerbitzu batzuk eskuratzeko.



03 ONDORIOZKO DATUAK

03.11


GENEROAREN ETA DESGAITASUN FISIKOAREN PERTZEPZIOA



PROPOSAMENAK


- 👤 Zeharkako politikak garatzea desgaitasun fisikoa duten emakumeei arreta eskaintzeko.
- 👤 Desgaitasun fisikoa duen emakumearen bereizketa bikoitzaren egoera gizarteratzea.
- 👤 Desgaitasun fisikoa duen emakumearen sustapena bermatzen duten baliabideak egituratzea bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren, hezkuntzakoaren, lanekoaren eta kulturalaren arlo guztietan.
- 👤 Desgaitasun fisikoa duten emakumeen ahalduntzea bultzatzea.
- 👤 Desgaitasun fisikoa duten emakumeen artean bizitza independenteko ibilbideak gauzatzea sustatzea.
- 👤 Desgaitasun fisikoa duten emakumeen prestakuntza eta lan-gaitasunak bultzatzea.
- 👤 Desgaitasun fisikoa duten emakumeentzako hornikuntza-sistema sozialak malgutzea eta prestazioak egituratzea, autonomia pertsonala eta ekonomiaren arloko autonomia bultzatuz.

04




ZEHARKAKO PROPOSAMENAK

04



04 ZEHARKAKO PROPOSAMENAK

- Estatu eta erkidego mailako oinarritzko erakunde-arauetan gizarte-eskubideak aitortzea; besteak beste, erakunde eta gizarte-eragile guztiek partekatutako akordio bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finantzatzeko ereduari buruz, haren egonkortasuna, eraginkortasuna, iraunkortasuna eta segurtasuna bermatzeko.
- Eskubideen ikuspegia bermatzea gizarte-politikak diseinatzean, gauzatzean eta ebaluatzean, soilik asistentzialistak diren joerak saihestuz.
- Gizarte-zerbitzuen komunitate-ikuspegia sustatzea, herritar guztien partaidetza berdintasun-baldintzetan bultzatzeko komunitatean.
- Desgaitasuna duten pertsonen arreta eskaintzeko eredia berrikustea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako desgaitasunaren gizarte-eredua finkatze aldera eta erabateko gizarateratzea bideratze aldera.
- Lidergo politikotik eta erakunde eta gizarte-eragile guztiek partekatutako akordiotik abiatuta, Euskadiko irisgarritasun unibertsala sustatzeko bultzada berri bat ematea, ekonomiaren, araudiaren, plangintzaren eta gizarte kontzientziazioaren arloko neurrien bitartez.
- Gipuzkoako Hirugarren Sektore Sozialaren estrategia bat egitea, eta bereziki azpimarratzea benetako partaidetza eraginkorra sakontzea gizarte-politiken diseinuan, baliabide ekonomiko eta material nahikoa bermatzean, eta gizartea eraldatzeko duen egitekoa eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo gizarte-bazterketako arrisku-egoeran dauden taldeen ordezkari gisa duen egitekoa sustatzean. Horretarako, erantzukizun publikoko zerbitzuak eskaintze hutsaren papera murriztu behar du.
Desgaitasuna duten pertsonen arreta bermatzea oinarritzko zerbitzu publikoetatik




04 ZEHARKAKO PROPOSAMENAK

eta diziplina askoko taldeen bitartez; horretarako, koordinazio egokia sustatu behar da zerbitzu espezializatu publiko eta pribatuekin.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen autonomia sustatzea hainbat gizarte-baliabide eta zerbitzutan, bizitza independenteko prozesuen proiektzioa bultzatuz.

Ekintza positiboko neurriak azpimarratzea desgaitasunaren ondoriozko desabantailak saihesteko edo konpentsatzeko tresna gisa, desgaitasuna duten pertsonen izatezko berdintasuna azkartzera edo eskuratzera bideratutako tresna gisa, eta horiek bizitza politiko, ekonomiko, sozial, hezkuntzako, laneko eta kultureko alderdietan erabat parte hartzera bideratutako tresna gisa, desgaitasun mota eta maila guztiak aintzat hartuta.

Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema berrikustea; batetik, onuradunen artean pobreziarik ez izateko, eta, bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak bermatutako diru-sarrerak baino maila baxuagoa duten pertsonak izanik laguntza ekonomikoko betebeharren egungo osaera dela eta laguntza hori kentzen zaienek horretarako eskubidea izan dezaten bermatzeko.



aniztasuna

aukerak
pertsonak



Gipuzkoako Gutxitasun
Fisikoa duten Pertsonen
Federazio Koordinatzailea



inklusiua

autonomia pertsonala
eraldaketa soziala
irigarritasun unibertsala



eskubideak
berdintasuna

parte-hartzea

